

Tolosako Bizikidetza Foroa

Aurkezpen dokumentua

2017ko martxo

Tolosako Bizikidetza Foroa 2013. urtean sortu zen. Foro honek Tolosan Elkarrik zuen taldea du sorburu eta oinarri. ETAk indarkeria amaitu ondoren, taldeko kideok gure herrian bizikidetza hobetzeko, politika normalizatzeko eta bake-bideak jorrazteko baldintza berriak irekitzen zirela jabetu ginen eta aurrera jarraitzea erabaki genuen. Orduan orain bezala, kontziente ginen -eta gara- iraganak utzitako hainbat arazo konpondu gabe ditugula oraindik eta gatazka egoerak gizartean sortu eta sortzen dituen zauriak eta etenak ere hor daudela. Guzti horri zintzoki eta modu zabalean ekiteko, taldearen aniztasuna ireki behar genuela jabetu ginen eta taldearen osaketari ekin genion. Lanketa horren ondorioz gaur abian jarraitzen duen Tolosako Bizikidetza Foroa sortu genuen. Ibilbide eta pentsaera desberdinetako 11 lagunek osatzen dugu. Urte guzti hauetan eta legealdi desberdinetan Tolosako Udalaren babesa izan dugu.

Denbora guzti honetan, Foroa elkarrizketa zintzoa eta errespetuzko entzumena bermatzen duen espazioa bilakatu da, partaideok bizitzen ari garen prozesuarekiko harturiko konpromisoak, desberdinen arteko elkarrizketa gauzatzeko beharrezkoa den konfiantzak ehundu ditu. Giro honetan, iraganari eta orainari erreparatu diegu, bizikidetzak izandako urraketa eta etendurei, denon artean eta ikuspegi desberdinen gainera errespetuzko etorkizuna eraikitze aldera eman ditzakegun urratsak aztertuz. Baina gure artean hitz egiteaz gain eta bertan bizitzen ari garen elkarrizketa prozesuari esker, Tolosako herritar orori zuzenduriko ekitaldiak antolatzen ditugu urtero. Gure helburuak desberdinen arteko hausnarketa zabalak ahalbidetu eta bizikidetza elkarrekin eta elkarlanetik sustatzea izan dira.

Hiru urte eta erdiko ibilbide honetan eta bizikidetza eraikitze horretan, guk ere, herritar bezala gure ekarpena egiteko konpromiso horri heldurik; gure istorioak partekatu ditugu, herri mailan izandako gertakizun anitzek gudan izandako eraginak zuzenean ezagutzeko aukera izan dugu, iraganak gudan duen pisuaz jabetu gara, norberaren eta bestearen ertzak eta mugak azaltzeko gai izan gara eta bakoitzaren denborak eta beharrak ezagutu eta errespetatzeko gai ere. Guzti honek, elkar ezagutza sakona eta elkar ulertzea ahalbidetu ditu. Gure artean gai konplexu eta gatazkatsuak izendatu eta aztertzeko gai izan gara, elkarrizketa zintzo eta erres-

Tolosako Bizikidetza Foroa

petuzkoaren bitartez mingarriak izan arren gai taburik ez dagoela baieztatzeko gai izan gara. Ibilbide honetan, tentsioak eta zailtasunak bizitu izan ditugu, horrek prozesua egiazkoa egiten duelarik, baina elkarrekin horiek gainditu eta urrats berriak emateko gai izan gara.

Ibilbide honetan, gure arteko solasaldi eta hausnarketek beste ahotsen eta ikuspegiekin aberastu daitezkeela konturatu eta ikusi dugu. Beraz, urtero antolatzen ditugun ekitaldien egitaraua prestatzerakoan, Foroak berak mahai gainean dituen gaiak kontutan hartzen ditugu, gizartea orokorrean bezala, gu ere elikatuko gaituzten gaiak eta hizlariak hautatuz. Momentu honetan Foroa “gertatutakoaren errela-toen” inguruko hausnarketan murgildurik dago. Gizarte eta politika mailan horren gatazkatsua eta konfrontazio gai den horretan.

Azken urteotan hauek izan dira ekitaldi publikoen bitartez landu ditugun gaiak: Memoria, biktimak, giza eskubideak, legea eta justizia, berradiskidetzea, emakumea gatazken konponbidean, bizikidetzaren eraikuntza indarkeria eta giza eskubideen urraketak pairatu dituzten gizarteetan, legearen eta justiziaren erantzuna indarkeriaren aurrean; literatura, memoria eta gatazka; komunikabideak eta bizikidetzaren eraikuntza, eta emakumeen ekarpena bizikidetzari.

Gai hauek lantzerakoan bertako zein kanpoko aparteko hizlariak izan ditugu gurekin: Iñigo Lamarka, Rosalina Tuyuc, Irantzu Mendia, Morena Herrera, Mario Zubia-ga, Arantxa Urretabizkaia, Pilar Eirene de Prada, Carmen Lamarca, Iñigo Iruin, José Ricardo de Prada, Harkaitz Cano, Laura Mintegi, Aingeru Epaltza, Bingen Zupiria, Lourdes Pérez, Iñaki Soto eta Bertha Gaztelumendi.

Horretaz gain bi film eman ditugu: “Reconciliación” eta “Mariposas en el hierro” eta Tolosako biktima batzuen testigantza zuzenak jasotzeko aukera paregabea izan dugu ere: Pili Zabala, Josemi Gómez Eloseggi, Gerardo Arin eta Maixabel Lasa.

Guzti honi esker, egun Tolosako Bizikidetza Foroak herri mailan esparru desberdi-netako eragileekin harreman zuzena du eta saretze honetan jarraitzeko helburua du, elkarrekin bizikidetza eraikitze horretan urrats berri eta emankorrak emate aldera.

Tolosa, 2017ko martxoak 8